



Sarbide Irekiaren aldeko mugimendua joan den mendeko 90eko hamarkadan sortu zen. Lehenengo ekintza garrantzitsuenak mende honen hasieran gertatu ziren. Mugimendu honek hiru oinarri nagusi ditu: [Budapesteko Adierazpena](#) (2002), [Bethesdako Adierazpena](#) (2003) eta [Berlingo Adierazpena](#) (2003).

Budapesteko Adierazpenean (2002) Sarbide Irekiaren ereduzko definiziotzat hartzen dena agertzen da: "Literatura [zientifiko] honetarako sarbideari buruz ari garenean, literatura hori Interneten doan eskuragarri egoteari buruz hitz egiten ari gara, edozein erabiltzailek artikulu horien testuak osorik irakurri, jaitsi, kopiatu, banatu, inprimatu, bilatu edo estekatu ditzan (...). Esparru honetan berrerabiltzeko eta banatzeko oztopo bakarra eta copyrightaren funtzio bakarra izan beharko lirateke egileei beren lanaren integritatearen gaineko kontrola ematea, eta behar bezala aitortuak eta aipatuak izateko eskubidea (...)"

Berlingo Deklarazioa munduko irakaskuntza eta ikerketa erakunde garrantzitsuenek Sarbide Irekia eta hura garatzeko ekimenak eta proiektuak babesteko konpromisoa hartu zuten. Bi baldintza ezartzen ditu sarbide irekirako:

1. Egileek eta jabetza intelektuala dutenek erabiltzaile guztiei berma diezaietela beren lanen sarbide, erabilpen eta banaketa eskubidea edozein euskarri digitaletan, betiere beren egiletza eta jatorrizko iturria behar bezala aitortzen badira;
2. beren lanen kopia elektronikoko oso bat utz dezatela biltegi digitalean, bai eta egileak emandako baimenaren kopia bat ere.

Harpidetutako argitalpenen bidez komunikazio zientifikoa garatzeko ohiko ereduaren alternatiba da Sarbide Irekia. Eredu horrek ordainketa bikoitza ezartzen dio ikerketari. Alde batetik ikerketa finantzatzen duten agentziena. Batez ere publikoak dira, eta ekonomikoki laguntzen dute. Bestetik unibertsitate eta ikerketa zentroena. Haiek tasa handiak ordaindu behar dizkiete funts publikoekin finantzatutako ikerketa zientifikoaren emaitzak argitaratzen dituzten aldizkari zientifikoaren editoreei.

Informazio zientifikorako sarbidea jarraituki eta doan izatea ahalbidetzen dio Sarbide Irekiak komunitate zientifiko osoari, eta bestetik hiritar guztientzat eskuragarri eta ustiagarri egotea ahalbidetzen du.

Mugimendu hori komunitate zientifikoko kide askoren, ikerketa finantzatzen duten agentzien eta gobernuen laguntzari esker sendotu da, informazio zientifikoa Interneten eragozpen ekonomikoetatik aske libreki zabaltzeak eta berriz erabiltzeak dauzkan abantailen jakitun baitira. Egile eskubideen babesa ere atal garrantzitsua da Sarbide Irekian.

Europako Batzordeak onartutako hainbat programatan gauzatu da babes hori. Egun [Horizonte 2020](#) (2014-2020) esparru programak eskatzen du berak finantzatu dituen proiektuen emaitza diren eta kidekoen artean berrikusi diren argitalpenak sarbide irekian gordetzea. Jarduera pilotu bat ere eskaintzen du [ikerketa datuak](#) sarbide irekian gordetzeko.



2013an [G-8ko Zientzia ministroek Adierazpen bat sinatu zuten Londresen 2013ko ekainaren 12an](#) beren zientzien akademia nazionalekin batera. Adierazpen horren bidez erabaki zen lankidetzan jardutea ikerketako datu irekien eta ikerketa zientifikoari dagokionez argitaratutako emaitzen sarbiderako azpiegituren sorreran.

Gobernuek emandako babesaren beste adibide bat da Erresuma Batuan legeak behartzen duela irekian argitaratzera diru publikoz lagundutako edozein lan.

Gure herrialdean ere eragina izan du nazioarteko joera horrek. [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 37. artikulua](#) unibertsitateei eta ikerketa erakundeei eskatzen die sarbide irekiko biltegiak sortzeko eta beren jardura neurri handi batean funts publikoz finantzatzen duten ikertzaileei, berriz, beren lanak biltegi horietan jartzeko.

Artikulu honek *Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzakoaren Estatuaren Plana (ICTI) 2013-2016* delakoaren eremuan egindako I+G+b-ko proiektuetarako deialdi nazionalei eragiten die.

Ilido beretik, 2011 ko urtarrilaren 28ko [99/2011 EDak](#), doktoretza ikasketak arautzen dituenak, onetsitako doktoretza tesiak unibertsitateek formatu elektronikoko irekian eta erakunde biltegi batean gordetzeko agintzen du .

Bestalde gero eta erakunde gehiago daude, [unibertsitateak gehienak](#), sarbide irekiaren aldeko erakunde politika dutenak, [Berlingo Adierazpenari](#) atxikitakoez gainera, eta horren bidez sarbide irekiaren aldeko babesarekin eta sustapenarekin konprometitu dira.

Eskualde gobernuak ere beren politikak garatzen ari dira sarbide irekiaren arloan ([Madrilgo erkidegoa](#), [Asturiasko Printzerria](#), Katalunia).

Azpiegituren garapenari dagokionez, Espainian, [RECOLECTA](#) biltegian bilduta daude sarbide irekiko biltegiak. RECOLECTAREN bidez modu zentralizatuan sartu eta gehitu daiteke sarbide irekiko biltegi nazionaletan (erakundeenak, gaikakoak eta zentralizatuak). Horrez gainera, RECOLECTAK biltegi guztien elkarreragingarritasuna bermatzen du, eta balio erantsiko zerbitzuz hornitzen ditu, hala nola bisitei eta egin diren behera kargatzei buruzko estatistikak.